

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

123n. Zenbakia

Urrilla  
1988



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## EUSKALDUNEN MIXIÑOIAK

Carmelo Ballester Gasteiz'ko Gotzaiña ta lenengo taldean joan ziran zortzi misiolariak. 1948'ko urrillaren 12'an eldu ziran Los Rios'era. 40 urte dira.

## USANSOLO ERRIBURU?

Edozein irakurlek dakian lez, ainbat erri dira beste uri batzuen menpean urte mordo egin ondoren, euren buru-jabetza lortu dabenak. Danak edo geien-geienak zioz, errazoiz, euren naimenaren aurka, au da, erri orreik nai ezebela, Bilbo eta Gernika'z lotuta aurkitzen ziralako, uri orrein inguruan tinkaturik egonik, erri orrekaz zabaldu nai ebelako beste barik.

Orixegaitik geiago be, iñork ezin leike esan erri orreik ez dabela eskubiderik euren buru-jabe izateko, bearbada sortu ziranetik geiago, azke, iñoren menpetasunik barik bizi izan ziralako.

Erri-azkatze orreik berbiztuta edo beti erriren baten auzune izan diran batzuk be azken-aldian erri-buru izan naian asiak dira; onein artean Galdakano'k daben auzunerik mardulena, biztaletsuena Usansolo dogu.

Azpalditxuan dabil gazte mordo bat auzune ori erri-buru egin bear dabela-ta. Ez dakidu zein eskubidetan oñarritzen diran gazte orreik, orain artean beintzat, errian garraxika eta izkanbillak sortu baiño besterik egin ez daben alderdi politikuren batek bultzatuta izan ezik, auzune txikiagoakaz Usansolo orrek ez daualako beste edestirik, kondairarik.

Orain ainbat urte, "Primo de Rivera"ren bakar-agintzak, "diktadura"n, izan zan orren antzerako "zarrapaz-tada" bat, antziñako Unkiña dorre-etxe ospetsuaren inguruan bildutako auzune zabal orretan, ortako iru-lau "jauntxuk" bultzatuta, baiña, ez auzune biztaletsu ori azke ta bere buru-jabe izateko asmuz, Bedia erri pout baketsuaz bat egiñik, bertako jauntxuekin batera erri ori erabilteko baiño, Usansolo'ko jauntxu orreik ezin ebelako Galdakano'n iñoz eurak nai ebenik egin. Beste ainbeste ete da orain egin nai dabena?

Gu ez gagoz auzune orren azkatasunaren aurka, ez orixe!, azkatasuna benetan maite dogulako, eta geuk maite doguna ezkintzen dautsugu beste gizaki ta erri guztiei ta beraz, atsegin izango yaku usansolotarrak euren buru-jabe izatea, baiña orixe; euren buru-jabe izateko eta ez jauntxu batzuen, naiz gorrizka naiz Kisto ezpatatzat dakarrenak izan, agindupean jausteko.

Gazte orreik adierazoten daben atxaki bat, Usansolo urrun aurkitzen data erri-barrutik. Egia erdizka da. Iru anineurkin (kilometro) zerbait geiago dira bertara dagozanak erri-barrutik, baiña, orrek ez dau esan nai aztuta daukala Udalak auzune ori. Orain 9 urte zerbait geiago, EAJ auteskunde bitartez erriko agintaritzarako aukeratu zan eta, ordutik ona gauza ederrik asko egiñak dira auzune orretan, beste iñon baiño geiago: Etxaide ta kale apain zabalak, argitsuak, erri-ikastola barriak eta zarrak apaindu. Kirol-toki bikaiña pelota-toki eder ta igiritegi txukuna ta abar.

Guztira ia bosteun milloa lauerleko eralgiaz auzune ortan bakarrik ez al-dakizue orrenbeste gazte kemen-tsu orreik? Erri-jabetza lortu at b'adozue, aurrera! baiña auzune orrek azkatasun osoaz aukeratutzen dituan gizon-emakumeak jaurtzeko eta ez indarrez jabetu nai dabenak.

ALTUNA'TAR JOSU

### EGUN URRATZE

Lenengo txio txintadapean  
urratu da zeruaren itzala  
ta, esnaldiko urdin-artean  
egunbideak gorpuztu dira.

Landa, ibar ganetan, basoen  
lurruna edatu da, gainbera,  
ta, an, urruneko osertzean  
illargia doa ostentzera.

Ba-dirudi egunaz batera  
gure biotzak alaitzen dirala  
ta, euzki argia datorrela  
guri bizi-poza emotera!

Olaxe argi gozo legunak  
bizkortzen ditu gure ametsak,  
gure indar ta, itxaropenak,  
obeagoturik gure izantzak.

MUNIATEGI-TAR SABIN

# EUSKERAZALEAK

## (Euskerea ikasten eta irakasten)

### ASIERATIK

"Euskerazaleak" Alkarteak asieratik artu eban ardu-  
ra aundia eta laguntza emon Euskalerriko erdeldunak,  
Bilbo'tarrak batez be, euskalduntzeko. Ogei ta batga-  
rren ikasturtea da aurten asten doguna.

Ikasleak urtero berreunetik gora izaten ziran lenago,  
baiña aspaldion kopuru au urritu egin da. Zergaitik?  
Bear ba'da len euskerea zapalduta egoan aldietan, geia-  
go arduratzen gintzazalako gure izkuntzearen arazo larria-  
ri buruz. Edo bear ba'da aspaldiko urteetan ikastaroak  
eta ikasturteak asko ugaritu diralako. Beste askoren  
artean Labayru'k egiten dauan lan zabala, Bilbo'n eta  
Bizkai'ko erri askotan, ez da aiztutekoa.

Gogotsu asten dogu ba ikasturte barri au eta batez  
be Bilbo'tarrai dei egiten dautsegu ikasturte onetarako  
euren izena emon dagien.

\* \* \*

### EGUNAK ETA ORDUAK

Lan barik ainbeste erritar daukaguzan aldi onetan,  
gaurko euskaldun zar eta gazteak oso lanpetuta dagoze-  
la ikusten dogu, alde batetik lana bera eta orren ondo-  
ren ainbeste batzar, ikasketa, laguntze eta abar. Ez da  
ba beti gauza erreza izaten euskerea ikasteko egunaren  
barruan baztertxu bat aurkitzea.

Ori kontuan dala, EUSKERAZALEAK ALKARTEAK  
aukera onak eskintzen dauz ikasketa au egiteko: Astean  
iru eguneko ikastaroa eta astean egun bikoia eta orduak  
goizekoak naiz arratsaldekoak naiz gabekoak. Ikasteko  
benetako gogoia daukanak, ba-dauko non aukeratu. Eta  
ordaindu bear dana be, ukasturte osoa 9.000 pezeta, ez  
da iñor ikaratzeko besteko dirutza.

### ZEIN EUSKERA?

Gure irakurleak ondo dakie guk irakasten dogun  
euskerea zein eta zelakoa dan: Erriak darabilen euske-  
rea. Ori ikasi ezker, errietara doanean ikasleak errez  
aurkituko dau nogaz euskeraz berba egin. Egia da,  
liburutik ikasten dan euskerea edo idazten dana eta  
erritarrakaz alkar-izketan erabilten dana, ez dira izaten  
bardin-bardiñak, baiña, zalantza barik, EUSKERAZA-  
LEAK irakasten daben euskerea da erritarrak Bizkaia'n  
darabilen euskeratik urren dagoana eta bizkaitarrak erre-  
zen ulertzen dabena.

Eta ez da aitzu bear gramatika legeak ondoen ikasi-  
ta be, berba egitea dala gauzarik bearrena edozein izkun-  
tza edo berbeta ikasteko.

\* \* \*

### LORPENAK

Guztiok dakigu izkuntza bat ikastea gauza gaitxa  
dana, umeentzat naikoa gaitxa eta elduentzat gaitxagoa,  
baiña ez da lortu-eziñeko gauzea. Ori baiezteko or  
dagoz Euskerazaleen Ikasturteetan ikasi daben ainbeste  
Bilbo'tar. Batzuk oso ondo eskuratu eben euskerea eta  
izkuntza au zabaltzen lan aundia egiten dabe. Ba-dagoz  
beste batzuk atzerago geratu diranak be, edo lan aun-  
dia daukelako edo erreztasunik ez daukelako edo beste  
zeozergaitik.

Alkarteak etsi barik, gogoia galdu barik, jarraituko  
dau lan au egiten eta alegin bardiña eskatzen dautsegu  
euskerea ikasi bear dabenai be: Eroapenaz eta alegiñaz  
lortuko dogu gureizkuntza ederrak aurrera egitea eta  
euskaldun lez daukagun egin-bear bat betetea.



## BALENTIN BERRIO-OTXOA (eta VIII)

GOIRIA

### AZKEN AINTZA

Iru egun egon ziran gorpuak lur-ganean agirian. Andik zazpi egunera itxasora jaurti egiezela gorpuak agindu eban Nagusiak, baiña bertako kistar batzuk gorpuzaintzaleari dirua emon eutsoen eta ez ebezan jaurti.

Iru santuak lotzeko jarri ebezan ziriak eta lokarriak be batu ebezan; bardin gorpuak biltzeko erabilli ebezan ixerak eta kateak.

Beste ainbat gauzen artean gaur be gordeta dagoz Balentinen roketa, meza-liburua, zilizio bi ta urrezko gurutzeta-petoralak.

Isidrok eta Monikak ez euken Balentinen albisterik bere idazkirik ez eben artzen-da. 1862'gko. garillean eldu zan Erromara Berriotxoa ta bere lagunuen eriotzaren albistea. Laster eldu zan Elorriora be. Santa Anako Kapellau zan Lorenzo Rodriguez Aitak emon eutsan Isidrori izparra. Ustebakoa benetan. "Neure semea il dabe. Neure semea il dabe —iñoan Isidrok negar-malko-artean.

Zartada andia artu eben senar-emazteak euren semetxua, seme kutuna il ebelako, baiña beste aldetik zorientsu be ba-ziran: martiri zan euren semea ta zeruan egongo zan euren aide eskatzeko.

Laster egiteko ziran Gernikako Batzarrak. Bizkaiko gizonik argienak batzen ziran Probintziako auziak erabagi ta legeak ezartzeko. Batzar onetan egoan ain zuzen be Eusebio Uribesalazar Balentinen aitabitxi. Batzarreko liburuan jarri eben jazokun au guztien izenpenekaz. Bizkaiko lenengo santua lenbailen aldarara eroateko alegiñak egin bear zirala agertu eben danak.

\* \* \*

Bikariato zentralera eroan eben Berrio Otxoaren gorpua bertako kristauak eskatuta. Bizkaiak eta Elorriok be eurekaz euki gura ebezan gorpuzkiak. Bizkaiko Nagusiak erantzunez bizkaiara bialdu egiezela agindu eban Bikariato Zentraleko Gotzain jaunak. Eta alantxe egin zan.

Mirariz ez ziran galdu gorpuzkiñak. Ekatz gogorra sortu zan itxasoan eta azken baten itxas-ertzean aurkitu ebezan. Gregorio Etxebarria Aitak Erramon Mendezona Kapitanari emon eutsazan gorpuzkiñak. Mundakatarra zan berau.

Bigarren Kapitana barriz, Onzain jauna, Gorliztarra.

"Ez daitezela galdu, ez daitezela galdu" esan eutsan Etxebarria Aitak Mendezona Kapitanari. Gorpuzkiñak emen doaz —erantzun eutsan itxastar jatorrak.

"Ni Kapitan nazala ta itxasontzia ta ni Bartzelonara eltzen ba'gara, gorpuzkiñak ez dira galduko." Arrera ona egin eutsen gorpuzkiñai bertan ziran euskaldunak batez be Artiñano jaunak. An ziran Bizkaiko Aldundiko ordezkariak, Elorrioko udaltxeko agintariak ata apaiz jaunak.

\* \* \*

Bizkaiko aldun bik artu ebezan gorpuzkiñak Mendezona Kapitanaren eskuetatik. Sabino Arana-Goiri zan bat eta au diño berak idazlan baten: "Neuk ikusi neban lenengo Europan Bizkaiko martiriaren gorpuzkiñak gordetzen ebezan kutxa ta egia esan atsegingarriago egin jatan sinismenez beteriko ta lau edo sei argiz inguratutako itxasontziko gela txikian ikusi neban kutxa, andik urte batzuetara Elorrioko Elizako aldara nagusiko eskuma-aldean kutxa liraiña gordetzen dauan illobi kaskarra baiño."

Gaur zorionez sartuta eskuma-aldean aldara eder bat jaso dabe ta antxe dago gorpuzkiñak gordetzen dauazan kutxa.

1886'gko. bagillaren 6'n eldu ziran Barzelonara Berrio-Otxoaren gorpuzkiñak Isla de Luzon itxasontzian.

Asko joan ziran esan danez Barzelonako portura Bizkaitik eta batez be Elorriotik. An zan askoren artean Luis Iñazio Borda, Elorrioko parroko jauna. Adiskide kutun-kutuna izan eban Bordak Balentin gaztaroan. Berak artu ebezan bein lurrean ziranean gorpuzkin santuak Bizkaiko aldun bien eskuetatik. Lartan eta mun gozoak eta estuak emongo eutsezan bai seguru asko Borda jaunak Balentin bere lagun eta adiskide kutunaren gorpuzkiñai.

\* \* \*

Bagillaren 9'n eldu ziran Elorriora gorpuzkiñak. Jai andia egin eban erri osoak. Santa Ana'ra eroan ebezan lenengo ta andik eliz-nagusira. Irurrena egin zan jazokun pozgarria ospatzeko jentetza andia batzen zalarik. Aldara nagusiko eskumaldean gorde ziran gorpuzkiñak kutxa eder baten. Santuaren marmolezko aldaran dagoz gaur.

Idazlanok egin dauazan onek be biotz-ikara andiz esan dau bein baiño sarriagotan meza santua aldara onetan, orobat goraldu bere egite arrigarriak eta santutasuna.

1906'gko. maiatzaren 20'n egin eban Zorundun Berrio-Otxoa Aita Santu Pio Amargarrenak. Urte onetako bagillaren 21-9'n egin dau *SANTU* Aita Santuak,

Beraz berau izango da geroztik seguru asko Bizkaiko ZAINDARI.

# ANTXINAKO EUSKALERRIA

## GALTXAGORRIREN ESKUTIK

### MARI'REN MORROIAK IV

Mari'ren indar eta aalmenak nituan buruan. Mari'k izango zitun morroi ta neskameak ere... galdetu neutson Galtxa-gorri'ri:

—Aizu, Mari'k izango ditu morroiak...  
 —Morroi ta neskame ugari...  
 —Zeintzuk dira...?  
 —Ni ta nere lagunak gara Mari'ren morroi...  
 —Ori, lenago be, esan zeunstan. Baña ba'dau besterik...?  
 —Lamiñak, Basajaunak, Jentillak... Asko dira...  
 —Lamiñak, zer dira...?  
 —Sorgiñak dira. Ibai-ertzetan bizi dira. Eta, zubiak egiteko, aparte-ko trebetasuna dauke.  
 —Injenieroak al dira ba, zubiak egiteko...?  
 —Zubi oso bat egiteko, lamiñak ez dabe gau bat besterik bear, ollarrak kukurruku jo arte. Ba'dakizu zer pasatu jaken egun batean...?  
 —Zer...?  
 Arroza'ko zubia egiten egozala'aizkeneko arria jartzeko zegola, ollarrak jo ei eban. Lana itzi ta, laisterka alde egin bearra izan elen; ez, orratio, ollarra madarikatu gabe:  
 "Martzoko ollar gorria,  
 madarika ikala mihia (mingaña)".  
 Ori esan da gero alde egin eben...



—Ta, Basajauna zeñi da...?  
 —Basajauna, gizon aundi uleduna dogu; koba zuloetan bizi dana. Aspalditik ekien Basajaunak garia ereiten eta ogi zuri gozoa jaten. Gari aren inbiritan egozan kristauak ta, hegira, zer asma eben Basajauneri garia arrapatzeko:  
 Muski'ko koban, Basajaunek bizi ziran. An gallurreko lurrak erabilita, sekulako gariak biltzen ebezan. Bee-aldeko lurretan Kristauak bizi ziran, ta, ez eben garirik ereiten, gal-azirik ez ta.  
 Beñ, Sanmartin Txiki, botiñ aundi batzuek jantzita, igon zan Muski'ko kobara; ta, ango garipillak ikusi ta, zeñek saltoa ariñago pasatu, Basajaunekin apostu egiñ eban.  
 Baita, Basajaunek berealdiko errezatasunez pasa eben; Sanmartin Txiki, barriz, gari pillaren erdira jausi zan; baño, baita botin guziak gal-alez bete be...  
 Kristauak ez ekien noiz eren; baña alako batean, Basajaun bateri entzun eutson, algaraz esaten:  
 —Ja, ja, jaiiii...!  
 Ba lekia, artuko likenea:  
 Or irtete, arto ereite;  
 or erore, gari ereite...  
 Ordutik zabaldu zan garia erri guztietan...



—Asko dakizu, Galtxa-gorri...!  
 —Urteen poderioz ikasi dodaz dakidazanak...  
 —Ta Jentillak be, ba ziran Euskalerrian...?  
 —Bai, ba ziran...  
 —Ze tipoko jendea zan...?  
 —Oso indartsuak areik be, Basajaunen antzera. Esango dautzut bein zer gertatu jakon Zerain'go Arrola baserriko jentillari.  
 Joan zan gari billa Araba'ra.  
 Idi-narru bat gari, bizkarrean ebala zetorrela, bere alabea topatu eban aurrez-aurre Zerain ta Zegama'ko mugan.  
 —Atsedean egizu ura edan artean. Esan eutson alabeak.  
 —Jakin izan ba'niñ atsedentzea zer zan, beste ainbeste gari ekarri-ko niñan.  
 Buruan zeukan erradatik eskeiñi eutson ura alabak eta erradaka-dea urarekin iruntsi eban aitak.  
 —Non dogu baldea? Galdetzen du alabak.  
 —Apurren bat iruntsi ete diñadan iriditu jatan...  
 Indar aundiak ebezan, baina lepoa be, ez txikia...

—Bai, ala iruditu jat neuri be...  
 —Beste bein ba dakizu ze gertatu zan Murumendi'ñ...?  
 —Nik ez dakit ezer...!  
 —Ba, pelotari batzuk pelotan ebiltzan. Ta, jentil bat Joan jaken ta galdetu:  
 —Zer egiten dozue emen?  
 —Pelotan jokatu. Erantzun eutsoen.  
 —Arri au zertarako dozue?  
 —Sakarrirako. ("Largoan" jokutzen zanean sakerako zegon arri aundi bat...).  
 —Berau be ez dok txarra peloten eran botatzeko.  
 Ta, artu eskutan sakarria ta berealdiko erruan Aralar aldera bota eban: Zer iruditzen jatzu...?  
 —Ba ebala arek indarra ta sasoi! Ta, aberatsak al ziran...?  
 —Euren kobetan ba eben urrea ugari. Emen bertan, Santimamiñen, idi-narrua bete urre gorri euken...  
 —Orain ez da jentillik eta orduan, bai... Zergatik galdu ziran Jentillek...?  
 —Ataun'en gertatu zana esango dizut gauza orreri buruz.  
 Jentillak Leizadi'ko koba batean bizi zirala, sekulako izar eder bat odaietan agertu zan.  
 Alako izarra ikusi ebenean, jentil areik erabat ikaratu ziran, ta munduan zer gertatu bear ete zuan ezin asmatu'rik ebiltzan.  
 Alako batean, koba barruan erdi-itxututa egoan jentil zaar bat ataka aurrera atera ta, zabaldu betazalak, ta odeietara begira jarri eben, antz emango eutsola-ta...  
 Baita, ikusi orduko, deadar egin:  
 —A, ene umeok...? "Kixmie" jaijo dok, galduak gaituk oraintxe.  
 Bota nazazute ni emendik gain-bera.  
 Jentillek Jesukristori "Kixmie" esaten eutsoen...  
 Gero, Kristiandadea munduan zabaltzen asi zanean, jentil danak sakabanatu ta bereala galdu ziran...  
 Ta, zure jakin-min ori ase al dozue, Euskaldun...?  
 —Aizkeneko galdera bat egingo dautzut izten ba daustazu.  
 —Galdetu, galdetu...!  
 —Tartalo'ren izena aitatu daustazu leenago. Zein zan Tartalo ori?  
 —Tartalo, gaiztoa zan. Kopetaren erdian eukan begi bakar aundi bat ta Aizkorri'ko koba batean bizi zan...  
 —Zergatik esan dozue Tartalo gaiztoa zala...?  
 —Tartalo'k mendiko piztiak jaten zituan; baiña kristauren bat arrapatu ezkerro be...  
 —Jan egiten eban...?  
 —Bai, orixe...!  
 —Ta, bizi da oraindik...?  
 —Esango dautzut zelan il zan.  
 Beñi ba anai arrapatu eban.  
 Biak, mutill gazteak.  
 Kobara eroan, atea itxi ta, areetako bateri burrunzia sartu, ta erreta jan eban. Besteari, barriz eratzuna jarri eutson atz baten, kendu eziñekoa.  
 Bazkalondoan Ioak artu eban Tartalo...  
 Orduan, beste anaiak, bizi zanak burrunzia sutan goritu ta bere begi bakarretik sartu eutson Tartalo'ri.  
 Tartalo'ren orru ta garraxiak...!  
 Itxu gelditu arren, indarrak ez jakon palta, ta mutillaren bills ebillen; ardi-narru pilla batean gordeta egoan gure mutill ori. Mutilla errezago billatzeko, Tartalo'k ardi-narruak kobatik kanpora bota eban. Baita mutilla be, narruekin batera.  
 Ekiten dio mutillak aldapa-beera korrika. Baña, beatzean eroian eratzuna asi zan deika:  
 —Emen nago...! Em en nago...!  
 Deadar orreitara, Tartalo laisterka mutillaren ondoren. Mutillak bere burua arrixkuan ikusi ebenean, atza ebagi ta, eratzun ta guzti, putzu aundi batera bota zuan... Baita Tartalo be, eratzunaren atzetik, putzura... Bertan ito zan...  
 Zure azkeneko galderari erantzun dautsot, eta nere bearrik geiago espadezu, agur...  
 —Agur, Galtxagorri maite, agur...!  
 Besterik gabe alden du jatan. Galtxagorri Santimamiñe koba zuloan barna... Ta, gelditu nintzan Gernika ibaiari begira. Zenbat gauza irakatsi eustan unetxo batean...! Ta, zenbat orrelako dagozan oraindik illunpean gordeta...! ANES

## BASETXEA

Basoan sarri-askotan ibiliak gara. Izadi-zaleak izateak eta kutsatu bagako aize arnagarria artu bearrak, bultzatzen gaitue baserri ta mendietara. Onezaz gaiñera, Aberria obeto ezagutzeko bide egokiena dala usterik, or ibili izan gara, ta ondiño ba-gabiltz, aldatz gora ta bera bester guztiak ikertzeko asmoz.

Euskaltzale on bateri dagokionez, beti atsegiña izan jaku baserritarrakin artu-emonak euskeraz eukitea. Euskerea giltz ona izaten da alkarren arteko lautasuna piztuzeko ta ekitaldia oparotsua izan daiten. Beti dago zioeren bat berbetan asteko. Egun on! opa izatea naikoa da. Beste arrazoi eragikorrak erabili gura ba'dozue, norabait joateko bide onena zein dan itaundu zeinkie; eguraldia aldakorra ba'dago, euria izango ete dan zuen ardurea adierazi egizue ta baserritarrak bereala asiko da kuñuka, zerura begira, bere iritzi zorrotza agertzeko. Dana dala, jardunaldia sortuko da.

Beti, edo sarritan beñipein, neure lenengo itauna besetxearen izenari buruz izaten da:

—Basetxe onek, zelan dauko izena?

—Agarre Goikoa, esango dausku baserritarrak, esate baterako, alboan dagon beste basetxe baiño gorago dagola adieraziz: a bekoka ta au goikoa, zeaztuko dau.

Onetzaz, basetxen izanak dirala-ta, beti izan gara jakin-gura. Oneik bai izen adierezgarriak! Geinak toki-izenak edo toponimikoak diran ezkerero, beti daukie beren esan-gurea. Batzuetan jatorrizko izenari nolanaiko sasi-aldaketan bat sartzen jakonian, illun geratzen da berarizko deitura ta or ibiltzen gara susmatzen, zelan edo alan, sustraia artu eziñik. Baiña geienetan argi agertzen jakuz izenak, basetxen egoera guztiz ederto erakutziaz: Goikoetxea, Arrupe, Osinalde, Bidegain, Elizondo eta abar. Ara emen gure abizenen iturri garrantzitsuena. Euskal abizena daroagunok, gure asaben basetxea aipatzen dogu, gure abizena ebakitzen dogun bakoitzean.

Abertzale zintzo izan zana Arantzadi'tar Ingartzi (Kizkitza zan bere izen-orde ospetsua) arduratu zan gai onetzaz ta bete-betea erabili eban, berak idatzitako "*La Casa Solar Vasca*", euskeraz "*Eusko Sortetxea*", idatzian. Bere orrietan iñon diran goralpenak irakurri geinkez basetxeari buruz. Eurak izan dira Euzkadi'ren izate ta jator-burua, endaren oiñarria ta euskeraren gordelekua; eurak, basetxeak, emon dauskuez daroaguzan abizenak, ta bere orma zar artean piztu zan laga euskuen kristau fedea.....euzko aunditasunaren sustraik basetxean dagoz. Berrogetamasei urte bete dira idazti au argitaratu zan ezkerero, ta orduan be ba-ziran kezka basetxen ondamendia dala-ta. Sarritan irakurri leitekez lerro-aldi edo esaerak naigabetsu ta eurrukiorkak basetxen atzerapena adieraziz.

Izan be, basetxen zori-txarreko ondamendi au nabaria da. Danok ezagutzen doguz Ien izandako basetxe loratsuak, orain etxeko ormak sasiak artuta ta inguruko

solo ta baratza bedarti ta zelaiak biurtuta. Kale ta uri ondoan dagozanak ondiño, alan-olan, jarraitu egiten dabe basetxe ta lantegiko zeregiñak bateratu ta txandaka egiten, baña basetxen lan bereziak gitxituaz. Uritik urrin joaten ba'gara ta basoan edo mendian zear ibili, ikusiko dogu lazokeri aundiagoa. Aldapetan eta batez be arrupe ta tontorren artean, asko dira bertan bera itxita geratu diranak. Negargarria da a ikustea: etxea sasi artean, teillatua ondatuta, barruko guztiak apurtuta ta aldameneko lurak, ortu ta alorren orde, dana piñuz landatuta. Orra or basetxearen eriotz irudia.

Ezin-besteko basetxeen urritasun onen iturburua, ekonomian dago bereziki. Len, ondiño aldi asko ez dala, etxe-ekonomiaren menpeko zan basetxearen egoera. Baserritarrak etxean, bertantxe, eukezan bizitzeko bear ziran gauza geienak. Abelakuntza ta lugintza ziran baserrian ekonomia oinarririk. Etxean jaten zan ogia be, bertan egiten eben. Garia erein, ebagi, larrindu, oreto ta etxeko laban egosten zan. Ondiño basetxe onduan ikusten doguz antziñako labeak. Domingo Agirre'k bere *Garoa* eleberrian diño lez..... "bere alboetan, amari gonetatik eutsita dagozan aurtxoak bezela, etxe nagusiari lotuta, basetxe bi agiri ziran: bata ogia edo artoa erretzeko labea, bestea abere-janariak gorde-teko lekua...".

Bai, ori gertatzen zan orain berrogetamar urte inguru. Baiña garai berezi ori joan jaku ta ez da biurtuko. Etxe-ekonomia igesi doa gure basetxetatik, langintza-ekonomiak bultzatuta. Baserritarrak kalera doaz bizitza erosoagoa ta lan saria edo alogera errezagoa billa, ta bitartean basetxeak utsitu egiten dira.

Ondamendi au ikusita, idazle ospetsua dan Linazasoro'tar Iñaki'k Gipuzkoa'ko basetxeari buruz idazti bat (*Gipuzkoa'ko Baserriak*) argitaratu eban bertako Aurrezki Kutxaren babespean. Basetxeak ostendu baiño lenago, orain amasei urte dirala, Gipuzkoa'n egozan basetxe guztiak ikertu ebazan. Orretarako ibili bear izan zan, erriz-erri ta auzoz-auzo, zertzeladak batzen gero guri idazti bikain baten ezkeintzeko. Basetxen izenaz gaiñera, beste argitasun jakingarriak opatzen dauskuz askotan, txosten txiki bat egiñez: basetxeak utsirik ala biztanlekin dagozan, oneik etxe-jabeak ala maizterrak diran, armariak eta abar. Idaz-lan mamitsu ta samurgarria euskaldunentzat.

Egoki ta ongarria izango litzake Bizkai'an be beste orrenbeste egitea. Asi da zeozer egiten. Zubikarai'tar Augustin eta Fernandez Egiguren'tar Jon jaunak alkarregaz ari dira arlo onetan. Ikusi al izan doguz iru idaztitxu oso politak. "*Ondarroa Baserri Giroan*" da lenengo argiratu zana, ta erri onetan dagozan berrogetaemeretzi basetxeak erakusten dauskuz, atsegintsu ta ederki. "*Berriatua*" ta "*Amoroto eta Gizaburuaga*" dira beste biok. Irurak dira alkarren antzeko.

IDIGORAS'tar JOSEBA ANDER

## OI ENE EUSKERA ORI! ...

Bein batean Loiolan erromeria zan. Oraingoan gaueko erromeria: gau-pasa; bestelako gau-pasa. Basilika osteko zelaia jendez bete-beterik egoan. Kantuz, otoitzez eta, gau luzea laburtu guran, Aita Santu Yon Paulo noiz elduko itxaroten.

Egun sentia baiño len, batera ta bestera genbiltzala, sasiko andra bat aurkituta, alkarrekin berbetan asi giñan. Madril'dik asita, Aita Santuari bere bidaian erririk erri, euren autoz, aal ebenez jarraitzen ziarduen taldetxo batekoa zan berau. Oso gogoko jakon Loiola'n Aita Santuari egiten geuntson arrerea. Iñoskunez, berak ikusitako onetarikoa.

Baiña bera, Loiola'n (eta Euskalerrri'an) geien-geien arritu ebana, euskerea izan zan:

—Yo que creía que con la larga represión de Franco había casi desaparecido, se habla muchísimo.

(Oi! "Muchísimo" ori egia balitz!) Nik aal nebenez erantzun neutson erri baten arimea ez dala iten ain errez: ("Erri txiki izanak kalte au dakar... Bainan erri bat iltzen ez duk ain errez!").

—¡Y no se entiende nada! —jarraitu eban emakumeak—. También los catalanes hablan siempre en catalán, pero se les entiende algo. En cambio a los vascos ni una palabra.

Izkuntza zarra, bakarra, indoeuropear izkuntzak baiño lenagokoa tab. azaldu neutson gane-ganetik, laburpentxo egin guran: "Oi aintziñako Euskal Erria!" Zeozer, ba ekian berak. Baiña, ez ebala ezer ulertzen eta:

—¡A mi no me gusta que hablen; no les entiendo y me da rabia! esanda amaitu eban.

Nik, txiñarren artean egon ezkeru, txinerarik ez dakidanez, barbarik be ez neuskiela ulertuko eta gogait egingo neukala, baiña ez leuskidala amorrurik emongo, esan neutson aal bait bareen. Eta berak:

—¡Es que los chinos son chinos; pero los vascos son españoles!

Neure diplomazia ta neure gozotsun, leguntasun, emetasun osoaren laguntzaz barruko sua indarrez itzalirik, al bait otzanen erantzun neutson:

—Ahi está lo raro: que a pocos kilómetros de aquí hay otros vascos que de españoles no tienen nada y hablan euskera.

Ez dakit erantzun eutson orreri; beintzat, lagun amaitu gendun gure alkarrizketa; geure elizbarrutietako ikur-ezaugarriak (ikurriñak ez!) berari emonda.

Emakume arek esandako "represión franquista" arek, Francotarra etzala bera erakusten eban; ezta "errepresioaren" laguna be. Bestalde, euskerea ezagertu izan balitz poztu egingo zala zirudian... Jainkoak lerro okertuekin zuzen idazten daua-la ta olantxe euskerea amaitu zanaren ustea ete eukan?

Gerotxoago, batetik bestera nenbillala, burutik beraiño baltz-baltzik jantzirik frantzesez itz egiten eben fraide bigaz aurkitu nintzan: Beloke'ko beneditarrak zirala esan eusten. Eurok frantzesak zirala, baiña ba-zirala an euren anaikide euskaldunak; eta Abate Nagusiak, Aita Santuarekin Meza emongo ebala, (Aita Iratzeder).

Or ba, nire adiskide barri espaiñarra instruitzen nenbillala aitzu jatana: kilometro gitxitara barik antxe bertan neukazala orduan, Aita Santua ikustera joanak, Espaiña'gaz zerikusirik ez daukien euskaldunak. Eta ba nekian, beneditarrak bakarririk ez zirala eurok.

MAITENA BELAUSTEGIGOITIA

ZABALA 5  
DURANGO (T: 6810610)

### EGUERDI ARTAN

Lorea ederrik bere tokian.  
Udabarria bere ormarrian.  
Argia dizdiz bere ekainean.  
Illuna baztertzeko lanbidean.

Ta, guraria, naitasun bizian.  
Odolaren irakintasunean.  
Ta, ongurazko ametsen erdian,  
Egunoroko goraberapean.

Eztakit ez, zelan ene maitea.  
Eguerdian artan, ez giñan gu jausi  
An, odol beroaren ekaitz erauntsi  
Sugartu biziaren lillurapean!

MUNIATEGI-tar SABIN

### EGUN GALDUA

Negarrak narabil gaur minbera ixilean  
ur gazietan birrinduta bere aparra  
lanbro arten ito bait yat egunabarra  
itxaso aundi biribil baten sabelean.

Troka zaarren baten edo da eguzkia  
zaldi gorritik jausita pagadirakoan.  
Bere apa gozorik ez dot eta agoan  
sutauts sunda otzez gogortu yat bekokia.

Pozik oi naiz illunaren altzo aaltsuan  
gaua denean zidar tangada jarioan.  
Gaur, baña; nik urgora baltzak ditut kolkoan  
izar kaxkarrenik ere ezpaita zeruan.

Baita eta ilargi-ari-lapur posako  
maiteagaz ametsak eunduten pagadian.  
Baña; gaur, nire atzamar puntzen biluzian  
illunen dardara larri bat baño ezdago.

A. BIDAGUREN

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ



**1988 - 89 IKASTURTEA**

**OGEITABATGARRENA**

**BIZKAIERAZ**

**IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN  
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

**ORDUAK:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**ORDAÑA:** 9.000 pezeta

**IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGI, 14-2  
BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

**21** .º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. **3** NIVELES Y CONVERSACION

**DIAS:** LUNES, MIERCOLES Y VIERNES

○ MARTES Y JUEVES

**HORAS:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**CURSO COMPLETO: 9.000 pesetas**

**INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423.53.22



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**



# IPUIN - SARIKETA

(Euskerazaleak)

## URTERO

Aspaldiko urteetan, urtero, Ipuin-sariketea iragarri dau Euskerazaleak.

Sariketa au eratzten dogunean, gure elburua idazleak ugaritzea, ipuiñak batzea eta irakurleai zer irakurri emotea izaten da.

Ipuinlari oso onak agertu dira geienetan gure sariketa onetara, ugaritasuna baiño geiago agertu da ontasuna leiaketa onetan.

Eta esandako elburuak be lortu dira: Urtero agertzen da idazle barriren bat bere idazkera egokiagaz arrituta izten gaituana. Ipuñak batzea be Iortzen da, batez be ZER gure aldizkari onetan argitaratzen diralako. Urteen joanean ba-dago or txorta on bat idazteko beste ipuin. Eta, azkenez, irakurleai zer irakurri emotea be lortzen da. Ondo dakigu ipuiña erren ulertzen dan idazte-mota dala, baita irakurteko atsegingarriena dana be.

## AURTEN

Ondoren ori ikusita, egia esan idazle geiagok euren ipuiñak aurkezteko guraria guban izan arren, gogotsu ekin dogu urterik urtera sariketa ori iragarten, baiña aurten zalantza aundiak izan doguz. Ez gogoa jausi jakulako, dirua urriago dogulako baiño.

Dana dala, beste eralketa batzuk argalago itzi bear ba-dira be, ipuin sariketa onetarako bear dan dirutza naikoa aundia

izan arren, aurtten be iragarpena egitea erabagi dau EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k.

## SARIAK

Sariak eskintzeko 100.000 pezeta artzen dauz gure Alkartek eta lau sari ezarten dira 40, 30, 20 eta 10 mila pezetakoak.

Sari oneik ez dira idazleak aberastuteko Iakoak, zalantza barik, eta ez da ori izan be guk billatzen dogun gauzea. Gaiñera ipuiñen luzerea iru edo lau orrialde, ez da neke aundia sortzeko lana be, ipuiñak laburrak eta ondo egiñak eta ondo aurkeztuak izatea nai dogu.

## BALDINTZAK

Gure baldintzak zeintzuk diran esan-bear aundirik ez dago. Naikoa ezagutuak garala uste dot: Euskera, bizkaieraz, Euskerazaintzaren idazkerea eta ZER'en erabilten dana, ipuiña ez daitela itzulpena izan, saria Iortzen dabenak Zer'en argitaratzea eta sari-bakoak be bai eurak ipuiñaren azkenean idatzita baimena emon ezkerero.

## DEIA

Gure idazleai dei bizia egiten dautsegu sariketa onetan euren ipuiñak aurkeztu dagiezan eta orrelan Bizkai'ko euskeria indartzeko alegin guztiak batu dagiguzan.

# IPUIN-SARIKETA

**EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:**

- **Ipuñak euskeraz** eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan **bearko** dabe eta idazkerea, **EUSKERAZAINTZA'k** argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuñak **asmaurikoak** edo errian **batuak** izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en **argitaratuko** dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren **azkenerako** EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de **be** **bear dabe. Abenduaren azkenerako** emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterilllean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.º **40.000 pezeta**
- 2.º 30.000 pezeta
- 3.º 20.000 **pezeta**
- 4.º 10.000 pezeta

— **Ipuñak** izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten **barruan** izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

# "ZAPUZTUAK"

Udalaitz nozu. Kontuz!, naz (bizkaieraz) ba diñot, zapuztua ni errukarri au! Bizkaitartzat joa nintzake-ta. Bizkaitar naiz gipuzkoar, anai ez al gara? Aoz ori diño-gu, baiña egitez? Gizona bai guzurti eder! Sarritan obe aoa edegiko ez ba leu! Txantxiku jaurtika daukie askok begipeko zuloa.

Mendi bat nozu ni, irakurle, Arrasate ta Elorrio bitartean; erdi gipuzkoar, erdi bizkaitar. Sortaldera Gipuzkoa dot eta sartaldera Bizkaia; ur dot Anboto, ur dot Intxorta. Erdian nagotzu, ta biak ditut anai kutun. Arkaitz, zugatz, trokaz eta etxe zuriz jantzirik daukadaz inguruak. Inguru zoragarriak, leen gure asaben egoitzak, eta gaur geureak, euskaldun guztonak. Urian naiz base-rrian bizi, ingurumari menditsua euskaldunak bere sort-oe. Onuntzago naiz aruntzago, danok euskaldun.

Biotz-erreak zetan dabiltz orduan a ta au zapuztu ta auzoen artean likarra erne-azten? Gizon bat, lur-zati bat dala-ta, politikan naiz euskal literaturan zergaitik au goretzi ta bestea zapaldu edo ixildu? Zergaitik onen lanak, meritu bakoak sarri, zeru-sapairaiño jaso ta beste orrenak, askoz obeagoak, lurpean osendu naita alperrik izerdia bota? Zek sortzen ete diferentzi ori? Zer ar-mota ete dabilkio barne olakoari?

Nik, Udalaitz onek, naiz Arrasate eta naiz Otxandio, erabat zaindu ta babesten, geure erriak bait dira, eta bertoe-tako janteak, naiz erri xume naiz gizaseme jakintzu, geure jentea. Areik eta oneik nik maite ditut. Baiña, auxegaitik ain zuzen, badot kezka gorriak egunotan. Egunoetan or zabaldu daben "Euskera" (1987., 2) zenbakian datorren lan batek zauritu daust barrua.

Zer lan, ostera? Felipe Arrese Beitiak bere adiskide Juan Frantzisko Maria Imaz-i, beronen Meza barri egunerako atera eutson olerki guren, arnasa aundikoa. 1900-an izan zan Meza barri ori. Don Pako deitzen eutsoen apaiz au Zornotza-n jaioa zan 1873-ko epaillaren 8-an; onen aitak, baiña, Aramaio-n eukon bere zeregiña baiñu-etxera joiazanak eroaten bai ebazan ara ta ona, ta Zornotza itxi ta ara joan ziran bizi izaten. Apaiz-ikasketak osotu ondoren, Apotzaga auzoan egin eban arimazaintza amabost urtetan; gero Arrasate-ko eleizako laguntzaile izentautu eben, eta bertan il 1957-ko apirillaren 19-an.

### BERTSO LANA

Gauza zaar batzaille fiña dogu Arraste-ko seme Josemari Velez de Mendizabal-an inguruko literatur-gaiak

batzen arduratzen dana: gogoan dogu J. Zaitegi jaunari buruz egin euskun liburu ederra.

Aukeratzen jakozan artxibuak arakatu oi ditu. Oraingoan baita Arrasateko "historigille porrokatua" dala diñoan Jose Letona-rena be. Antxe idoro dau olerki luze bat, "Neure adiskide maite Don Juan Franzisko Maria Imaz Jaunari bere meza barriko egunean" deritxona, sei orrialdetan idatzia. Meza barritan, bazkal ostean edo, abestuak izan ei zan 24 estrofako Ian au; luzea, baiña gartsua, Arrese Beitia-ren geienak lez.

Josemarik, bere lana biribildu naiez, "Zer esan dai-teke olerkiari buruz" diño bere kolkorako. Eta zalantzaz ikusten dau bera ez dala nor —nire ustez alan be olakoenak dira eritxi zintzoenak— eta Juan San Martineri eskatzen dautso berea.

San Martin-ek, nik uste, ez eban irakurri olerki au, azkenean diñoenetik atera geinkenez. Ezkorra da benetan idazle onen eritxia otxadioar bere garaiko olerkari jasoari begira.

"Ez diat —erantzuten dautso San Martin-ek— uste inongo erregeletan legez sartzekoa denik, zeren (au be ezta erregeltan sartzekoa) ez daidik gordetzen ez neurri-rik ezta ere punturik, erregala hertsietan behintzat. Poesia bera, zer esanik ere ez, erromantiko erakoa duk eta bere izatezko egitura poesia jenero barnean narrati-vo deritzan horietakoa duk.

"Lerroen silabak, diptongoekin batzutan bat eta bes-tetan bi egiteaz gainera, hori kontutan hartuta ere, batzutan 13 eta bestetan, 14 eta 15 silabaz eginak zeu-dek, neurriaren erregelak hautsiz. Puntua (rima) bera oso pobre erabiltzen dik, bertsolarien erregelarik xin-pleenen mailarra iristen ez direnak. Lehen bertsoan (estrofa) ikusi besterik ez zegok: *bade, neuke, bere, neike* traketsegi direlako hotsen aldetik.

"Beraz, ez zegok kantatzeko egokitua, errezeitatzeko baizik. Eta, errezeitatzeko ere ez duk oso egokia, erri-tmoa eskatzen duten etenak (cesuras) falta dituelako."

"Eskuizkribua bera, nahiko garbi zegok F. Arrese Beitia ber-berarena dela. F. Arrese Beitiak badizkit zen-bait poesia erromantiko interesgarriak, `Ama euskera-ren azken agurrak', `Arbola bat', eta abar, baina gehien gehiena oso farragoso duk, erromantizismoaren azke-naldeko gehienak bezala. Horregatik, poesia horrek ez dik asko balio baina, hala ere, bere lanaren lekukota-sun bat gehiago duk." (*Euskera*, 1987, 2, 392 or.).

## NEURE ERITXIA

Udalaitz, arri-mokor naizan arren, urtetsu naizan aldetik ba dakit zerbait, baita olerki arloan bere, eta zillegi bekik aurreko esanak traketsak dirala adieraztea. Ona oker aundi batzuk egillea gaizki lagatzen dabenak.

Leenen ez ei dau "gordeten ez neurririk ezta ere punturik". Au irakurri ondoren nik, oso-osoan aztertu dot astiro begiratuz. Eta auxe atera dot garbi eritxi emoillean lenengo aapaldia irakurri dauala bakar-bakarrik; zeatz irakurri baleu ez eban olakorik esango. Baiña gauza bat naiz pertsona bat beztu opa danean, edozer gauza egozteko prest dago giza-barrena.

Neurkerara jorik, lan au zortziko nagusia dozu, arnasa aundiko gaietan Arresek atsegin ebana, eta euskal poesi neurkeraz zerbait aitua danak, laster ulertzen dauana. Onela: 5/5/5 leenengo bertso-lerroa ta 5/5/ (3) edo 4. Era orretan zortzi lerro. Irakur:

Eta ¿ non ditut/abade baten/anditasunak  
Goratuteko/bear dan añan/itz zakonak?  
Non esakunak, non bardinkuntzak/irudi eta  
Orretarako/bear neukezan dote onak?  
Non ditut bada/apaingarriak/orniduteko?

Non petxi eder/, non egokiak/diran lorak?  
Non emokaiak/, non gogamenak/eta azkenez  
Jakituria, etorri gozo/ta ganorak?

Falta al da emen neurririk, etenik, azken oskidetsurik? Ez, ez gogaitu ez daukanari akatsak arrapatu nairik. Arrese oso zeatza zan orretan. Diptongo, sinalefa ta abar, olerkariaren esku dagoz egin edo ez egin: orreik olerkariaren arnas-zuloak besterik ez dira.

Goralpenezko lan luze au ederto landua dozu, orduko poesi-legeak zearo beterik. Baiña, zoritxar aundiz, azken-urteotan sarri be sarri gertatzen dana: edozein edazlanetan, leenengo lerroak irakurri ta eritxi emotera, kantatzen ikasi ez dauan zozoaren antzean.

Joandako ogei urteotan, ezeren lotsa bage, orixe da askok eta askok, euren burua maisutzat artu ta iñondiko disparaterik aundienak bota. Euskera ta euskal idazleak ondatu ta zulora egotzirik. Au ete da euskera salbetako bidea? Ganorarik ba al da emen?

Zentza gaitezan, bakoitzari berea emonik; gabiltzan zuzentasun bidetik, eta ez norbere irritsen eragifiz.

UDALAITZ



## JOANEZ DOA

Dana doa lotaraten,  
dana doa bai itzaltzen,  
zugaitzak igesi eta  
bultzia, txistu-ots zoliz,  
arin doan bitartean ...  
gaba da arentzat, gaba,  
arrats-bidezko etorritz  
eguzkia dirdai ta oraindik,  
egunaz egonarren  
aren begiak iñoiz ez dabe  
geiago ikusiko  
leio bultzitik alorra,  
ez dabe une ori barrero  
ez dabe biziko  
orduko zeru urdiña,  
egun-margo pinpiriña,  
ez txori ez egaztirik  
zelai eta bedartzarik,  
baiña izate orren esparru,  
ortzi barruan dagoz

beren abesti ta egoz,  
ortzi lillurakizuna,  
alorraren ondasuna,  
norberazko amets-ondo,  
orduko zeruz egiña,  
eta, tinkokiro sendo eusten  
dabe aren eskuak  
oztopoetan ez jausteko  
ta elburura eltzeko,  
seguru dabilta arein  
burutasun ta pausak,  
amets egindakora elduko  
dira prisarik barik,  
biotzak, sugarretan lez,  
badaitsuak izanda be  
sugar, txispa ori ez da iñoiz  
itzaltzen ain errez.

MUNIATEGI-tar SABIN

## BUDA'k ARGITUA

(INDIA'ko IPUINA)

Beñola, Errege batek seme bat eukan,  
eta ez eban gura ezelan be bere semeak  
bitzta onetako zoritxar eta naigaberik ezagutzerik.

Orretarako Erregeak bere semea beti jauregi barruan,  
txoria urrezko kaiolan lez, ondo gordeta zaintzen eban.

Jauregian bizi ziran guztiak,  
Erregeak zorrotz eragotzita eukien,  
errege-semearen aurrean, munduan jazoten diran  
zoritxar eta atsekaberik aiatu be egiterik.

Jauregia, ganera, ibai zabal batz inguratuta egoan,  
eta zubi bat bakar eukan kanpora urten ai izateko.

Eta Erregeak zubi erdian zaintzaile bat ipiñi eban  
jauregiko sart-urtenak ondo gordetako.

Errege-seme txikia jauregiko baratz eder,  
lorategi polit, iturri garbi eta lana atseginetan,  
guztiz pozik eta zoriontsu bizi zan.

Umea azi, eta mutil gazte egin zanean, ganera,  
bere aitak errege odoloko neska eder, maitagarri batekin  
ezkondu eban.

Ezkontza ori zala-ta jai andiak egin ziran jauregian...  
Errege-erregin ezkonbarriak, alkarren maitasunaz zoraturik,  
inoren bildur eta ezeren buruauste barik,  
jauregiko lore baratz artean goxo-goxoro ibilkatuz,  
urrezko amesetan murgildurik ezitan bizi ziran.

Baiña errege-semeari bere barruan  
mundua zelakoa dan ezagutzeko gogo bizia sortu jakon,  
eta zubiko zaintzaileari esan eutsan:

—Munduan zer jazoten dan jakin-gura gura neuke.

—Ez olakorik, arren, Jauna, ez olakorik,  
(esan eutsan arriturik zubizainak).

Mundua ezagutu ezkerro, berorren zoriona,  
eta berorren emaztearena, guztiz betiko ondatuko leuke.

Erantzun onegaz errege-semeari  
mundua zer jazoten dan jakin-miña zorrotzu jakon,  
eta diamantezko arri-pitxi eder bat zubizaiñari emonaz,  
onen baietza laster erosi eban.

\* \* \*

Urten ziran, ba, biak, errege-semea eta zubizaiña,  
zaldizko burdi-apain batean mundua ezagutzera.

Ara eta ona ibiliz, bazterrak arakatu ondoren,  
agure zar bat aurkitu eben, lepoa makur, makila eskuan,  
arnas-estuka bidean joiala.

Eta errege-semeak zubizaiñari: itandu eutsan:

—Or arrastaka dabilen ori gizona ala aberea da?

—Ori ez da aberea, Jauna. Gizona da ori!

—Zergatik doa, bada, makurtuta Iurrera begira,  
errotarri astun lepoan baleuka lez?

—Arririk ez dauka orrek lepoan, Jauna.

Urteak dauz orrek gainean, eta urteen pixuaz,  
gorputza makurtu egiten da, begiak ilundu,  
belarriak gortu, zanak gogortu, oiñak astundu,  
eta indarrak guztiz galdtu...

- Goazen etxera, esan eutsan errege-semeak zubizaiñari.  
Eta jauregira biurtu ziran.

Iru egun emon ebazan errege-semeak jauregi barruan,  
bera gelatik urten barik, bakartadean,  
ikusit eban agure zarrak pentsatzen.

\* \* \*

Laugarren egunean urten ziran ostera be biak,  
zaldizko burdi-apainean, mundua obeto ezagutzera.

Eta ibiliaren ibiliz, gizon bat aurkitu eben  
bide bazterrean lurtean otzunda.

Itxuraz gaztea zan oraindiño,  
baiña gorputz guztia zauri naskagarriz josita eukan.

Arrak aren aragi usteletan bazkari gozoa eukan.

Eta errege-semeak zubizaiñari:

—Zer da bide bazterreko zikin-pilo ori?

—Ori ez da, jauna, zakar-piloa.

Gazte geiso bat da ori!

—Zelan, bada?

—Gure gorputza, jauna, gaztea izan arren,  
geisotu leiteke, eta begira gatxak  
zelan ixten dauan gazte baten gorputza.

—Goazen etxera, esan eutsan errege-semeak zubizaiñari.  
Eta jauregira itzuli ziran...

Beste iru egun egin ebazan errege-semeak bakarrik  
ikusit eban gazte geiso aretaz pentsatzen.

\* \* \*

Irugarren aldiz joan ziran ostera be biak  
munduan zer jazoten zan obeto ezagutzera...

Eta ilerri baten ondoan lau gizon ikusi ebazan  
lepo gainean zerraldo bat eroiela, eta arein atzetik  
emakume andia bat negar batean...

—Zergatik errenbesteko negarrak?,  
itandu eutsan errege-semeak zubizaiñari.

—Zerraldoan daroen ori ildako bat da, jauna.  
Gizon guztiak, batzuk lenago besteak berandutxoago,  
baiña danak il egin bear dabe, gero lurperatu,  
eta an usteldu egiten dira.

—Erregeak be il egiten ete dira?

—Aberatsak eta txiroak, jakitunak eta ezjakinak,  
erregeak eta menpekoak, danak eriotzaren zorrean  
bizi dira. Dan-danak il bearra dabe.

—Goazen etxera, esan eutsan errege-semeak zubizaiñari.

\* \* \*

Etixerako bidean, jauregi aurrean,  
lagun pilo andia bat aurkitu eben, jai egunetan lez,  
musika, dantza, txalo eta kantuka.

—Zer jazoten da?, itandu eban zubizaiñak.

—Ez dakizu? Erregiñak seme bat izan dau,  
eta orregatik erri guztia pozetan dago.

Errege-semea dantzarien erditik aurrera,  
inori jaramonik egin barik, jauregina sartu zan,  
eta an ixilean, bakartadean, ausnartzen asi zan:

Nire seme au jaiot dan ezkerro, urteak igarota,  
agure zar egin, eta azkenean il egingo da.

Ori ola izanik, zergatik seme bat mundura ekarri?.

Nire emazte gaztea be, ain emakume ederra izanik, egu-  
nen batean zartu, eta il egingo da.

Ori ola izanik, merezi dau ezkontzerik?

Eta luzaroan burutapen oneik ausnarrean ausnartuz,  
erabagi sendo bat artu eban:

"Nire bizitzaren ganerako urteak, munduko guzurretik urrun  
neure bakartadean emongo dodaz."

Baiña zelan joango zan bere emazte kutunari,  
eta seme jaiobarriari azken mosutxo bat emon barik?

Eguna ilundu eta gaua etorri zan.

Jauregian danak lotan egozan.

Gauerdian beatz puntetan, ixil-ixilik,  
ama eta umea lo egozan gelara sartu zan, eta...

umetxoaren aurpegian azken mosutxo emoteko  
makurtu zanean... pentsatu eban:

mosutxo au emoterakoan umea itxartuten ba'da,  
umearen negarrak ama be itxartuko dau...

eta amaren begiak eta umearen negarrak  
munduko guzurrez barriz lotuko nabe.

Eta bere emazte kutunari, eta ume jaiot barriari  
azken mosutxo bat emon barik, biotza negarrez,  
errege-semeak jauregitik alde egin eban...

bakartadearen ixiltasunean, munduko gauzak  
zein utsalak diran ausnartzeraz.

Buda'k argitu eban.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI. S. J.

## 40 URTE. EUSKAL-MIXINOIAK

Urrillean bete ziran 40 urte Euskal-Eleizbarrutietako mixiñoiak sortu zirala. 1947n.urtea zan Gasteiz'ko Gotzaiñak, abade ta abadegaien gurariak kontuan artuta Erroma'ra Aita Santuagana joan eta mixiñoi-lana egiteko bere eleizbarrutia eskiñi ebala. Gero, 1948n.urteko urrilean artu eben lenengo abade-misiolariak Los Rios mixiñoiaren ardurea. Lenengo abade-talde orretan lau ziran Bizkai'koak: Maximo Gisasola, Biktor Garaigordobil, Eusebio Ozerinjauregi eta Frantzisko Arraibi. Iru Gipuzkoa'koak: Luis Alberdi, Elias Zuloaga, eta Leandro Zaloña. Eta bat Araba'koa: Gregorio Alonso. Orrein ostetik abade, Iekaima ta laiko asko joan dira. 600 inguru gara misioi-arlo onetan ekin dogunak.



Maximo Gisasola Zeanuri'tarra, lenengo misiolari-taldearen zuzendaria. Mixolari-lanetan ebillala berebilla erre jakon eta bera barruan. Lenengo aldiak estualdiak izan ziran.

### ERA BARRI BAT

Nik ez dakit lenengoak izan giñan ala ez. Baina bai izan giñan lenengoak Eleizbarruti lez mixiñoetako lurralde baten ardurea artu genduanak. Egun orretara-arte

Lekaide-Lekaima alkarteak eta Misioñi-Erakundeak izan ziran Eleizan Mixiñoi-lana egiteko ardurea eukenak. Eleizbarrutietako abadeak eta Jaungoikoaren Erriak naikoa eben otoitz egin eta diru-laguntza emotea. Eleizbarruti bateko abade batek mixiñoi lanean ekintzaille izan nai ba'eban, bere eleizbarrutia itzi eta Mixiñoi-Erakunde batera sartu bear eban, eta kristiñau zee batek ez eukan ezelako biderik ori egiteko. Jokabide ori oso urrin dago Eleiza, osoa mixiñoidun lez ikusetetik, ez da or agertzen iñondik be tokiko Eleizea Eleiza lez artzerik eta gitxiago kristiñaua aintzat artzerik. Baiña orduan Gasteiz'ko Eleizbarrutian ziran abadeak aurrea artu eben eta burubide ori ondo elduta euken. Orregaitik ausartu ziran Aita Santuari sinistebakoen artean mixiñoi bat eskatzera. Mixiñoi bizia aitatzen zan eta orregaitik bururatu ta eskatu zan Asia'ko mixiñoi-lur bat, zeatzago esateko, India'koa.

XII Pio Aita Santuak, 1947'ko urrillaren 30'ean Gasteiz'ko Gotzaiñagaz izan eban alkar-izketan, Ecuador'eko Los Rios erkian izango zala Gasteiz'ko Eleizbarrutiaren mixiñoi-lurra erabagi eban, eta gotzaiñari esan eutsan Mixiñoietarako arduradun ziran Erroma'ko Saiileakaz alkar-izketara sartu zedilla.

Arlo onetan Erroma'n jakitun ziranak uste ebenez, Eleizbarruti batek ez eban eskintzen naikoa ziurtasun mixiñoi-lanaren jarraipena ziurtatzeko. Erabagia Aita Santuak artua zan ezker, aldirako bide bat aurkitu eben: Asi eta gauzea norantza doan ikusi eta bear bada abade misiolariak eurak konturatuko ziran Eleizbarrutiak ez zirala gai mixiñoiak eskatzen daben lako erakunde korapillotsu bateri erantzuteko. Baiña gauzeak ez eban urten areik uste eben lez, bestetara baiño: Mixiolariak sendotu egin ziran, Eleizbarrutiko mixiñoi-gurarien ordezkari eta egille lez mixiñoiak artzera bultzatu ebezan burubideetan.

Iru urtetan eragozpen aundiak izan ziran eta eragozpen orrein kondairea luzeegia litzake emen edesteko, baiña Ecuador'eko gotzain guztiak izan ziran mixiolarien alde, eta Batikano'tik bertatik sortu zan eleiz-legeen aldakuntza bat guk geure lanean jarraitzeko. Gaur 40n.urtea ospatzen dogu Euskal eleizbarrutien lenengo mixiñoia bere lanean asi zanetik.

Urte onein barruan beste au be gogoratu bear dogu: Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiak, Jaungoikoaren Erriaren irudia aurrean dala, Eleiza osoa jarri ebala mixiñoibidean.

Gogoratu dagiguzan agertzen diran bide barri batzuk:

---

## ELEIZEA

---

—Eleizbarrutia mixiolari izatea ta Eleizbarruti bateri mixiñoi bat emotea.

—Eleizbarrutiko abadea mixiñoietara joateko bideak zabaltzea.

—Laikoak mixiñoi eta eleiz-lanetan kideko izatea.

—Mixiñoi-lanetara ta eleizbarrutikoetara lekaide-lekaimeak sartzeta.

—Eleizbarruti osoa mixiñoi-eginbear onetara sartzeta.

—Tokiko Eleizan Gotzain danak eskuratu dauan neurri barria.

### ELEIZBARRUTI-ARTEKO IZATEA

XII Pio'ren aldietan eragozpenak Eleizea ulertzeko eratik etorri ziran eta orregaitik Erroma'ko Erakundeak izan ziran bide barri au bide okerra zala uste ebenak, baiña aldien joanean eragozpenak Eleizbarruti beraren barrutik sortuko dira.

Mixiñoi-ardura ori artu eta laster Gasteiz'ko Eleizbarrutia iru zati egin eben eta eleizbarruti barri bi sortu ziran: Bilbo'koa ta Donostia'koa. Lenengotan ez zan agiri eragozpenik mixiñoi-lana irurak batera egiteko, eleizbarruti-artean beteteko, baiña orain iru Gotzain izango dira arduradun nagusi.

Zatitzea ta banatzea egin zanean, Eleizbarrutietako mixiñoiak izan ziran iru eleizbarrutiak batera egiteko geratu zan lan bakarra. Orrelan mixiñoiak izango ziran Bizkai, Gipuzkoa ta Araba'ko abade ta laikoak lotuko ebazan zil-este bakarra. Alkartasun au, gero esango dogun lez, gaitxa izan arren, orain berrogei urte gaur arte bizirik dago.

Kasimiro Morzillo'ren pentsabidea zein izan zan iragartera ez nintzake ni ausartuko, baiña ni mixiolari izan nintzan aldi areitan Hispano-Amerikarako Abadeen Alkar-Lan Batzak eratu eban ikastaroa egin-bearra izan genduan.

Pablo Gurrupide gure Gotzaiña izan zan argi ta garbi alkartasun ori apurtzeko guraria agertu ebana. Artuta egozan mixiñoiak bere erara banatu ebazan eta bereak izango ziran beste mixiñoi batzuk sortu be bai. Berak esaten eban lez, onelan jokatu ezker, Eleizbarruti bakoi-txak ardura geiago artuko eban eta mixiñoiai emoten jaken laguntza bera be ugariagoa izango zan. Baiña mixiolariak, mixiñoi barrietara joan ziranak eurak be bai, ez genduan gauzea orrelan ikusten, banatzea bera eta banatzea egiteko erea kaltegarriak zirala uste genduan.

Aldi orretan bat baiño geiago izan giñan Los Rios' era joateko eragozpenak izan genduzanak. Ecuador' era eldu giñanean jakin genduan banatze orren barria. Bizkai'tar guztiok agiri bat izenpetu genduan, bear zan itzaltasunaz baiña erabagi ori ez genduala onartzen esa-

nez. Guk ez genduan ez Eleizearen aldetik eta ez artzain-lanaren aldetik orretarako ziorik ikusten. Iru eleizbarrutietako abadeak eta laikoak pozik genbiltzazan alkartasunezko lan ori egiten. Gure artean ez egoan zatitzerik, bai, ostera anaitasun aundia.

Eta kondaira guzti onetan, une arriskugarrian, gizon arrigarri bat dago barru-barruan, bere eleiz-zaletasunaz eta kondaira-arloko jakituri aundiaz Gotzaiñaren erabagi ori ez beteteko laguntza aundia emon ebana D. Jose Zunzunegi da gizon ori.

Gasteiz'ko Seminariotik Derio'kora aldatu giñanean, gizon orreri Derio'ra sartzeko atepak itxi egin jakozan eta oraindiño almena izan eban gugaz isillean batzarrak egiteko.

Gizon arrigarri onek kondaira-bideko ikuspegia eukan eta orregaitik eroapen aundia eta beti esaten euskun alkartuta bizi garan artean iñok ez gaituala banatuko. Sarritan gogoratzen euskun eroapen santua edo itxaropen santua. Oraindiño gogoan daukagu ainbestetan esaten euskun esaldia: "Orreik be il egingo dira". Eta mixiñoi-arloa zatitzerik ez zan lortu. Gaur be alkartuta jarraitzen dogu lanean iru euskal-eleizbarrutietakoak.

Gure Gotzaiñak bere mixiñoiak sortu ebazala esan dot. Orixe zala uste dot berak zatitzea lortzeko artu eban bidea, baiña auxe bai ba-dala gitxik dakien gauzea: Alkarren arteko lokarria, mixiñoi barrietan be bai, gero be D. Jose izan zala. Orregaitik, urak euran bidera biurtu ziranean, mixiñoi guztiak eleizbarruti guztien artean artu al izan ziran.

Ona emen eleizbarrutien arteko lanaren alderdi onak:

— Iru Gotzaiñak, euren arteko alkartasuna lortzeko, zeregin bakar bat eukan.

—Iru eleizbarrutietako abadeak alkartuta jarraitu eben.

—Jarraipen ziurragoa lortu zan.

—Eleizbarruti baten ezintasunak, beste batek beteten dauz. Oraintxe be Araba'k mixiolari geiago emoten dauz, besteak diri-laguntza geiago.

—LOS RIOS aldizkariak aldi luze onetan beti jarraitu dau. Bera izan da iru eleizbarrutiak alkartzeko lokarri bat.

### MIXIÑOI-ARLOEN UGARITZEA TA URRITZEA

Mixiñoi-giro onen lenengo 20 urteetan gure eleizbarrutietan abadetzarako deituen ugaritasun aundia izan zan. Seminarioak bete-beterik egozan, lakoetara zabalduta egoan. Ori zala-ta, mixiñoi ardura barriak artu al izan ziran. Gaiñera gure lenengo mixiñoi-arloan izan zan ondoren ona izateaz gaiñera beste eragin bat be izan zan eleizbarrutien mixiñoi-arloak ugaritzeko: Bilbo'k bere kontura mixiñoi-lan batzuk artu ebazala

eta gero oneik be iru eleizbarrutien artean bete bear izan zirala.

Len esan dodan lez, lenengo emon jakun mixiñoia Ecuador'eko Los Rios izan zan. Gero etorri ziran El Oro ta Manabí Ecuador'en bertan. Gero Ameriketara Chile, Venezuela ta Brasil. Orain Ecuador'eko iruretan jarraitzen da lanean eta Angola, Zaire ta Rwanda daukaguz.

Ecuador'en bertan be egoerea aldatu egin da. Manabi'ko lurraldea osorik begiraten dogu, baiña El Oro'n iru lurralde baiño ez doguz begiraten. Los Rios Gotzain-Lurrean, au orain artean oso-osoa geure kontura egon

### MIXIÑOI-BIDEEN AURRERAPENA

Ezin ukatu geinke urte onein joanean mixiñoi-bideak aurrerapen aundia egin dabela. Ezin ukatu, baita, gure eleizbarrutietan izan dan aurrerapena. Mixiñoiak zer diran eta mixiñoi-lana zelan egin bear dan ikusteak berak be era barriak aurkitu dauz. Adibide lez, gogoratu orain urte batzuk izan genduzan arlo onetako pentabideak. Gogoratu gure kaleetan ikusten ziran "bal-tzen eta Txioen" alde dirua batzeko kutxatxuak. Or ikusten da orduan mixiñoi-lana zer zan. Lana bera lekaideak eta lekaiameak egiten eben eta guk geure diruaz eta otoitzaz laguntzen geuntsen.



Mixiñoi-lanaren lenengo ekiñaldian eleiz-etxeak egiteari eta ikastetxeak naiz katekesi-lanak aurrera aterateari emoten jakon garrantzia. Gero "Txioen Aldeko Aukerapena" egin zan eta arlo orretatik asten da mixiñoi-lana.

da, oraintsu artu diran erabagiak artu ondoreñ, lurralde bi itzi dira eta gotzaiñari beste lurraldeetarako abade-kopuru bat ziurtatu jako.

Zaire'ko mixiñoi-lurra epe-mugea dauka: 199 Urte ori eltzen danean ikusi bearko da jarraitu ala ez. Esan bearra dago, ba-dagozela an bertako abadeak, naizta gure eleizbarrutien laguntza pozik artua izan euren aldetik.

Afrika'ko beste lurraldeetara abade geiago bialtzeko usterik be ez dago. Oraingoz aurrera jaraitzen dogu Angola ta Rwanda'ko mixiñoietan, gaur an dagozan abadeak jarraitu al daben artean.

Nire ustez, eleizbarrutiak mixiñoi-lanera zuzen sartzek eta Batikanoko II Eleiz-Batzarrak ekarri ebazan aldakuntzak, misioen ikuspegi barri bat ekarri daukue.

Itzi dagigun aide batera gure eleizbarrutietan izan dan aldakuntzea eta begiratu dagiguzan mixiñoiak eurak. Lenengotan "arimak salbatzera" joan gintzazan. Gorputzai be begiraten geuntsen, egia da, inguruan ziran zuzengekeriak be ikutua egiten euskuen, baiña gure lenengo ardurea angoen gogo-bizitza zan. Aldi aretan egin ziran otoitz-etxeak, irakastetxeak, abade-etxeak, gaiso-etxeak. Mixiolariak lagundu eutsen, baita, bertakoai euren etxeak sendoagoak izan zeitezan. Aldi aretan egin zan, baita, katekesis-lan aundi bat eta urrin bizi

---

## ELEIZEA

---

ziran ume ta nagusiai kritiñau-ikasbidea emoteko bide luzeak egiten ziran. Orduan erri-erlejiñoari garrantzi aundia emoten jakon eta Eleizbarrutiakaz artu-emon aundia egoan eskutitzen eta aldizkarien bidez eta mixiolariak parroketara ikustaldiak egiten ebezan, eta abar...

Lenengo gizon eta emakume mixiolariak estutasun aundiak ikusi ebezan eta askotariko eragozpenak azpiratu-bearra izan eben. Areek alkartasunaren eta txirotasunaren eredu argiak izan ziran eta olako zerbait dauke gaur be misiolari-talde batzuk.

Lenengo aldi onen aurrerapena alde batera itzita, aztertu dagidan orain zelako aldakuntzak ekarri ebezan, Erroma'ko Eleiz-Batzar Nagusiaren ondoren, Medellin eta Puebla'ko alkartzeak. Argi\_ ikusten da Barri Ona zabaltzeko personeren bizitzan baldintza batzuk bete bear dirala. Erri oneitan ikusten diran zuzentasunik-ezak eta sarritan agertzen dan bizitza errukarria zerura oiuka dagoz. Jesus'ek "Zeru barriak eta lur barria" iragarri ebezan. Bere egitekoa batez be txirotasunaren artean bete eban eta txirotasunetik asita egin eban Erreiñua, Zerurako lana egitean jarraitu egin bear zan, kristiñauaren elburua Aitagazko azkenengo besarkadea dalako, baiña orretarako gaurko gizonen gorputz giroko bear-izanak alboratu barik. Zuzentasunik ez dagoan lekuan ezin leiteke sortu anaitasunik. Orregaitik alkartze onein ondoren datorren artzain-lanak era barriak eta lentasun barriak aurkituko dauz. Jesus guztiak salbatzera etorri zan eta baita gizonak euren morroitzak guztietatik askatzera be.

Beste artzain-lan guztiak alboratu barik, txirotasun jake lentasuna eta orixe izango da aurrerantzean "txirotasun aldeko len-aukerapena" esango jakona. Jaungoikoaren berbeak jenteari dei egiten dautsan, jenteari askatze bidera daroan tokian, antxe sortuko dira Gizona kondaira ta jakintza baten oso-osoan murgilduta bizi da. Gizakundearen ezkutukiak aurrean daukaguzan gizonai mundu onetatik igarotetan laguntzera bultzatzen gaitu, zerura bidean laguntzera. Ameriketako Askapenaren Teologija sortu zan eta Afrika'n bertako jakintzara sartzeko eta angoko gizona antxiñatik datozen bildurkerietatik askatzeko egingo da lana.

Gaurko mixiolaria alkar-izketearen bidetik doa. Kondairan doan gizona billatzen dau eta gizonaren jakintza jatorra zapaldu daualako eta sortaldeko bizi-erak aziak billatzen dauz, ebanjelioa zabaltzeko oiñarria ortxe ipinteko. Sarritan salatu da mixiñoi-lana errietako jakintza jatorra zapaldu daualako eta sortaldeko ezarri dauzalako fedearen izenagaz. Gaur itzaltasun aundiagoaz jokutzen da. Betiko bizitza aitzuta itzi barik, mixiñoen ardurea gaurko berezitasunak eta zertzeladak daukazan gizona da.

Ez da alboratzen beartsuak laguntzea baiña zuzentasunaren aide eta gizonen aurrerapenaren alde doa joko guztia. Eta dana Jaungoikoaren berbatik sortzen dan gogo-bizitza iturri dala.



Mixiolari izanak urtero batzen dira Urkiola'n. Erdi-erdian Biktor Garaigordobil Los Rios'ko Gotzaiña izana eta bere ondoan gure lankide eta ZER'eko idazle ugaria zan Manuel estonba.



## LEKAIMEAK ETA LAIKOAK

Aurrerago esan dodan lez, eleizbarrutia ta abadeak zuzenean mixiñoietara sartzeak, mixiñoira laikoak eta alkarte batzuk sartzea be ekarri dau.

Lekaimeak eta laikoak abadearen laguntzaille onak izan dira. Lenengoetan lekaimeak irakaskintza-lana egiten eban, gaiso-etxeak eta katekesisa ziran bere egitekoa. Eta lenengoetako laikoak dana egin bear izaten eben: Sukaldari-lana, etxegintza, katekesi-lana. "Dane-rako balio eben" andrak eta gizonak ziran.

Arlo onetan be aurrerapen aundia agertu da. Lekaimeak eta laikoak artzain-lanean kideko izaten dira, abadeak taldeak osotzen dabez, Ba-daukagu orretan zer-ikasirik. Guk nekez egiten doguz egitarauak abadeak eta lekaide-lekaimeak batera dirala eta laikoak Barri Ona zabaltzearen lanera sartzea guztiz gaitz egiten jaku.

Gogoratu dagidazan Euskal Eleizbarrutien Mixiñoetan lankide izan diran alkarteak.

Lan onetara lenengo sartu ziranak Lekaime-Laikoen (misioneras seglares) Alkartekoak izan ziran. Oraindiño be an dago taldetxu bat. Gero "Aliadak" etorri ziran, urrengo Maitasun-Mertzedariak, Berriz'ko Mertzedariak, Kurutzearen Alabak, Abadeen Laguntzailleak, Frantzisko Arraibi'ren Lekaime Mixiolariak, eta zelan edo alan laguntzaille dira, baita, Rwanda'ko Mixiñoian diran Santa Ana'ren aitzak.

Ezin daikedaz zenbatu laikoen arteko laguntzailleak. Andra eta gizon ezkonduak, baita ezkongeak be, joan dira gure eleizbarrutietatik eta euren lana egin dabe an, eta batzuk urte asko daroetz mixiñoian lan egiten.

Bilbao'n, Donostia'n eta Gasteiz'en Eleizbarrutiko Mixiñoiak daukezan ordezkari-tzetan ba-dagoz laikotalde batzuk gertatzen, utsik geratzen diran lekuak beteteko eta misiolarien deiai erantzuteko itxaroten dagozanak.

Mixiñoietan lan egiten dauan eta alkartuta bizi dan eleizbarrutiko senitarte oneik laguntza ugaria emon dautse abadeai, lekaimeai eta laikoai. Mixiñoietatik betiko biurtzen diranean, izan daben esperientziak ikututa <sup>ikusten</sup> dabez euren buruak eta sarritan alkartzen dira senitarte-giro ori agertzeko eta an urteetan bizi izan dan kristiñau-giroko adiskidetasuna emen be banatzeko.

## GAURKO EGOEREA

Ez noa orain barriro aitatzen, gaur begiratuta daukaguzan mixiñoiak zeintzuk diran. Ori esan dogu lenago.

Misiñoietan dagozan mixiolariai begira, auxe esan bear dogu: 52 abade, 24 lekaime eta 12 laiko dirala, guztiz 88 mixiolari.

Baiña gauzatxu batzuk bai esan bear dodaz. Gaurko abade gazteak ardura aundia artzen dabela mixiñoi-



Ba-dira, euskaldunak endakeri-zaleak garala diñoenak, baiña euskalduna beti izan da orretan biotz-zabala. Montubioakaz alkartasunean biziteko ez da izan arazorik.

-arazo onetan, eleizbarrutietako mixiñoen arlo onetan. Aldi baten uste izaten zan emendik urten eta irugarren mundura joatea igeskeria zala. Gaur ori alboratuta dagoan eritxia da eta emen daukaguz urte batzutarako ara joateko eta euren abadetza an erabilteko eta bear dan lekura joateko gertu dagozan abade gazteak. Gertu egote onek ba-dauko bere ezintasuna abade gitxi egitean, emengo eleizbarrutietan abade gazteak bear izatean. Uriarte'tar Joan Mari Gotzaiñari entzun neuntsan esaldi onegaz batera nator: "Gure txirotasunetik, geu baiño txiroagoak diranai lagundu-bearrean gagoz".

Beste jakingarri bat euki bear dogu kontuan: Mixiñoietan bertako abadeak sortu dirala. Ba-dakigu Afrika'n ugari dagozala bertako eleiz-deituak. Ecuador'en, oraingoz, Los Rios Gotzain-Saillean, bost abadegai nagusi dagoz eta oneitariko bat aurtengo urte au amaitu baiño lenago egingo da diakono.

Lekaimeak eurak be ba-daukez deitu batzuk, oraindiño gitxi.

Gure eleizbarrutietako laikoen artean ardura aundi bat dago irugarren munduko arazoai begira eta ez dira gitxi Eleizbarrutietako Mixiñoi-Ordezkaritzetara urrera-

---

## EZIKETA

---

tzen diranak, jakingarriak eskatzeko. Eta mixiñoietan diran bertako laikoan artean kristiñau-eldutasun aundiagoa ikusten da. Afrika'n laikoak eurak dira katekesiari edo Alkarteen arduradun biurtu diranak, Barri Ona zabaltzearen zeregiña euren artzen dabenak. Eta alkarreetan kideko edo apostolu-ekintzetan ekintzaille diran laikoak ba-doz euren giroko artzain-lanera sartzen.

Gure eleizbarrutiai begira beste au be esan bearrean nago: Gure Gotzaiñak doguzala lenengo mixiolarriak. Mixiñoi-arazoak aztertzeko batzar bereziak egiten dabez, une onetan eurak dira gaurko mixiñoi-mundu korapillotsua bizkortzen eta bideratzen dabenak. Euretari bat, Setien Gotzaiña, Gotzaiñen ordezkogogoeleizbarrutiko mixiñoi-arazoetan bear diran eguneroko ekintzak beteteko. Iru eleizbarrutietako ordezkariak bariku guztietan batzen dira Urkiola'ko Santutegian. Olatzko batzar batzutara Gotzain Ordezkaria bera be etorten da: Eleizbarrutietako iru ordezkariak batera jokutzen dabe, ekiñaldi ta ekonomi-arloan be bai. Oneixek dira orain mixiñoi-giroaren gogo-emoterako ardatz-etxeak.

Eratze ta bateratze-arloan asko be asko aurreratu dogu.

### MIXIÑOI-LANAREN ONDORENAK

Jaungoikoaren eta gizonen lana, Espiritu Santuak gizonen laguntzaz egiten dauan lana, ez da neurtu edo zenbatu leiken lana. Gure almenak baiño gorago dagoan gauzea da ori. Baiña neure ustez lortu diran ondoren batzuk gogoratuko dodaz, 40 urte oneitan etorri jakuzan ondasun batzuk. Ez noa aitutzen, beti bat esaten

ez ibilteko, aurrerago Eleizbarrutiko Mixiñoien ondoren onak lez agertu doguzan gauzak.

—Eleiza euskaldunarentzat gauza ona eta aberasgarria izan da mixiñoetara zabaltzea.

—Lan onetan kideko izan garanik geienok, izan dogun bizi-ikasiagaitik esker ona agertu bearrean gagoz.

—Mixiñoietan arduraz lan egin daben eta egiten daben laiko-eragin asko sortu dira eleizbarrutietan: Medicus Mundi, Irugarren Munduaren Adiskideak, Gure Ekintza...

—Eleizbarrutiaren mixiñoi-ikuspegia biztuteko, eguneratze ta bideratze lagungarri izan da.

—Eleiza Orokorrari emoten dautsagun Iaguntza ugaritze ta be izan da.

Etorkizuna zelakoa izango dan ez dakit, ori Jaungoikoaren eskuetan dago. Ez dakit aurrerantzean mixiñoi onei edo beste batzui eutsi al izango dautsegun. Baiña laguntzailerik edo lagungarrik ez dagoalako, biar dana itzi-bearra ba'litz be, egindako lana onartzekoa litzake.

Asieratik 40 urte igaro ondoren, ezin ukatu, al doguna emon dogula baiña asko geiago izan dala artu doguna.

Urril onen 12'an Urkiola'n egingo dogu batzarra Eleizbarrutiko mixiñoetan izan garan emakume ta gizonen: Anaitasuna berbizteko ta Jaungoikoari esker emoteko alkaritzen gara.

LEGARTZA'TAR JOSEBA I.'k.

---

### MARITXU TELLATUKO

---

Ipuña dirudinarren ez da oraingo ipuin bat. Ni mutiko nintzaneke gertakizun eder baten egitazko oroitzapen laztantsu bat da neuretzat.

Agin lokatu bat eskuz atara izan ondoren neure amaren aginduz etxurreko labelako tellatura jaurti neban letani au agoskatuz neure umetasunean.

"Ene Mari tellatuko amandre gonagorria; eutsi bai, eutsi zuretzat nik oraintxe kendutako agin zar au zuretzako ta, emoidazu barria amandre maitagarria emoidazu bai beste bat.

Orduko nire eskaria bai egiztatu egin zan agin zarra egondako lengo leku berberean

itxura ederragoko barri bat atara yatan benetako miraria!

Baiña, orain zartzaroan bearkizunik gorrienean ainbat agin zar, ustelez aurkitutzen naizen arren ez da ez, barririk sortzen, Maritxu, zure bitartez, baizik geiago usteltzen.

MUNIATEGI-tar SABIN

# JUANTXO-TXIKI ETA ZEURE JUSTIZIA

## AUR-EZIKETA (16)

*Justizia eta zuzentasuna* biak bat dira. Zuzentasuna, okerretik ez ibiltzea da. Zuzen eta oker, orra ibiltzeko bi era desberdiñak. Zuzen ibilli eta zuzen jokatu, okerrera jo gabe, orixe da justiziaren jokabidea.

Juantxo-txikirekin zuzen jokatu. Berak baditu bere eskubideak. Eskubide oiek zapaltzea, oker jokatzeari litzake eta justiziaren aurka. Bere eskubide guztiak ezagutu bear dituzu eta eskubide oiek onartu. Ezagutu, onartu eta betetzen saiatu.

\* \* \*

*Umetxoak bere buruan* argi gutxi izan arren, begiak irikitzea naikoa du zu berarekin oker jokatzeko ari zerala ezagutzeko. Injustiziak ezagutzeko aalmen berezia du, begiak irikitzearekin bakarrik.

Bere biotza irabaziko badezu, aurretik bere eskubideak zaindu bearoko dituzu, maitasunak eraginda. Ez duzu esaten umetxoak, zeureak, asko maite dituzula..? Orra maitasunaren oiñarrizko bat.

\* \* \*

*Indargea eta argala* duzu Juantxo-txiki eta bere eskubideak zaintzeko aiaña ez da. Bere burua defenditzeko indarrak ez dualako, ez bere eskubideak oinperatu. Damutuko zaizu egunen batean.

Zergaitik? Berarekin zertan ari zeran konturatzen dalako eta eguna etorriko da zu argal eta bera indartsu izango zeratena. Zure egintzeetatik ikasi du oker jokatzeko eta berak ere zurekin oker jokatu du. Zeuk erakutsi diozu. Errukigarri izanen zera egun artan. Eta egun ori gertu dago.

\* \* \*

*Zure asarrerik ez* umearen kaltean lasaitu. Ez dezala berak zure umore txarra ordaindu. Asarre zaudenean ez eraso Juantxo-txikiri; batez ere bera ez danean zure asarrearen errudun. Izanda ere, kontuz.

\* \* \*

*Bakarra ez danan* Juantxo-txiki, guztiakin neurri berdiña erabili. Danak maitatuko dituzu neurri berean. Neurri batekin neurtu. Euren artean makalen bat balego, orduan berari Iaguntza eman geiago. Neurri berdiña begien aurrean ikustekoa izan dedilla. Bistan dagoena, izkutuko jokurik gabe.

Bestela jokatzuz, burrukaren azia aserrea sortarazten ari zera. Eta, zertan ari zeran, eurak konturatzen dira ondoto.

Neurri desberdiña argalantzako, gaxoentzako, atzeratuentzako. Euren mesedean. Beste guztiakin berdin jokatu neurri berdiñean eta neurri zuzenean.

ARRINDA'TAR ANES

# Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik,  
Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik,  
Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik,  
Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

## Bizkaia beti.